

ANDIMA IBINAGABEITIA

Berriz ere hil-kanpaiak illundu digu Euskal Herria. Atzo-edo, Salvatore Mitxelena zen. Ta gaur Andima. Oraingoan Ameriketatik etorri zaigun aize-boladak notizi benetan penagarria ekarri digu.

Nork daki Euskal Herria'k eta Euskerak zenbat zor dioten Andima-ri- Eskertu ezin haiña eskierki. Gizona oso-osorik, gorputz ta anima, gure herriari ta hizkuntzari itsasia, katigatua bizi izan zen. Bere maite, bere aragi zituen biak. Idatzi liburuak, euskal aldizkarietan argitaraturiko hamaika idaz-lan, irratietan eman ohi zituen saioak, hitzaldiak, Caracas'ko ikastolan erein ta zabaldu zituen hitz eta erakutsiak, eta... Edozertarako gertu zegoen egon Andima. Martin Ugalde'k hitz-bitu digu Andima'ren bizitza: "Euskerari eskeiñi zion erbesteratua ta mindua zeukan soiña, iñola ere erbesteratu al izan ez zioten bere gogo argi ta pizkor ura". Horixe zen Andima.

Ta orain galdetu: Nork daki Euskal Herria'k eta Euskerak zenbat eta zenbat zor dioten Andima'ri? Batzuk ba dakigu JAKIN aldizkari honek ere zenbateraiñoko zorrak dituen berarekin. Ez du ahaztu JAKIN'ek, bere jaiotzean neke ta ahalegin bizian ibilli zebillela, Andima'ren bihotz zabaletik xurruptatu zituen arnasa ta kemena. Geroan ere, Andima beti izan izandu zaigu JAKIN'en xuxperlari ta bizigarri.

Ta Andima hil egin da. Baiña, hala ere, Andima bizirik dago. Andima joan zaigu. Baiña bere arnasa ta izpiritua gurekin gelditu zaizkigu. Hemen gelditu zaigu bere euskera ere, bihotz-bihotzetik urtetzen zitzaion euskera batua. Bera, guri dena utzita, huts-hutsik joan da. Halako gogo ta maitasunez erein zuen azia egunen batean bizi-indarrez erneko da ta kimu loratsuak emanen ditu.

Euskal Herria, Euskera eta JAKIN'en izenean: Eskerrik asko, Andima. Eskerrik asko eta agur.

JAKIN taldea.